



AMIKUZEK BIZI NAHI DU



EUSKARAREN GALERA NAFARROA BEHEREAN

Iñaki Camino eta Mattin Irigoienekin solasean

“Badea norbait?": Amikuzetik begira euskararen galerari

Hona Amikuze, edo *Amiküze* bertako askok dioten moduan: Nafarroa Behereak Biarnorekin muga egiten duen ipar muturrean, 32 herri, 9.000 biztanle denen artean, hiriburu Donapaleu –Dnaplü– 1.850ekin, lautada zabalez eta muino apalez osatutako paisaia, hazitarako artoa denetan, Europan izena duen Lur Berri nekazari kooperatiba industrialaren sortze eremua, zenbait enpresa tiki... eta euskararen ezagutza %50 inguruan. Benetan? Benetan, nahiz eta kanpotik hurbildutako euskaldunari kostatuko zaion euskarazko solasik entzutea inon, ez bada ostiral eguardean Donapaleuko ferian eta ostatuetan, 75 urtetik gorako laborari txapeldunen ahotan: amikuztarren erdiak badaki.

Donapaleuko karriketan dabilen hegotar despistatuak pentsa lezake galiarrek okupatu badute Xilaba osoa, Amikuze bereziki frantseseta lortu dutela. Baina hemen ere, Aturri eta Biduze ibaiek gozatutako soroen arteko herriotan, badira jende eta taldeak hizkuntzaren hondamendia azpikoz gain irauli nahi dutenak. Euskaraz bizi nahi duten amikuztarrak!

Alta, duela 50 urte, Lapurdiko barnealdean eta Nafarroa Behere osoan eta Zuberoan bezala, Amikuzeko herrietan ere euskararen ezagutza %80tik gora zegoen. Euskaltzaindiak 1979an plazaratutako “*Conflicto Lingüístico en Euskadi*” liburuak kolorezko lamina deigarriak zekartzan azken orrietan, zeinetan udalerrri guztiak euskal hiztunen arabera koloreztaturik ageri baitziren; mapan %80-100 euskaldun irakurri beharreko kolore gorritz ageri ziren Amikuzeko herri gehienak.

■ **Egilea: Pello Zubiria Kamino.**

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.531. zenbakiarekin banatua, 2016ko azaroaren 27an)



ENDURO



BIDUZE

Amikuzeko hiriburu Donapaleuren bi ikuspegi, ezkerretan arto eta gari soroetatik begiratuta, eskuinetan Biduze ibai gainetik. Nafarroako erresumak porrot egin zuenean, hemen atxiki zuen bere azken burujabetza hondarra, errege-erreginen jauregi, moneta fabrika eta guzti.

1972an Pedro Irizar (1910 Azkoitia- 2004 Madril) hizkuntzalariak Euskal Herri osoan egindako inkestaren emaitzak mapa koloretsuetan bildu zituenean, haietan ageri zen euskararen etenik ez zela Amikuzen: orduko 8.419 biztanleen %81ek hitz egin zezaketen euskaraz, herri gehienetan %90etik gora ziren euskaldunak eta %58,8 Donapaleun bertan. 45 urte beranduago, euskararen ezagutza %50ean dagoela uste da.

“Uste da”... zeren eta EDB Euskararen Datu soziolinguistikoen Biltegian ageri denez, eskualdekako daturik ez baita Iparraldean, askoz gutxiago herrikakorik. Zuberoa + Nafarroa Behereak osatutako multzoan 1996an euskara ulertzeko gai zirenak (euskaldunak + ia euskaldunak) %76,3 ziren, 2001ean %76, 2006an %66,2 eta 2011n ere %66,2.

Transmisioaren etena are nabarmenagoa da “euskaldunak” atalean, hizkuntza ulertu eta hitz egiteko gauza direnen artean: 1996an %64, 2001ean %60,9, 2006an %55,5 eta 2011n %52,1. Hamarkada bakoitzean %8ko galera honek ikararazten du euskaltzalea.

Bilakabideari erreparatu gabe EDBren datuen artean soilik 2011ko argazkiei begiratuko bage-

nie, antzeko portzentaietan dabilta Nafarroa Beherea (%52,1 osoki euskaldun) eta Gipuzkoa (%53,3). Kontua da Irizarrek Amikuzen 1972an %80 eta %90 aurkitu zituen bitartean, Gipuzkoan 1981ean euskaldunak % 39,5 zirela. Geroztik batean gora adina egin du bestean behera.

Amikuzeko euskaltzaleak urteotan, Iparraldeko gainerakoak bezala, ez dira besoak tolestaturik euskararen hilotza noiz karrikan pasatuko zain egon. 1971n oso goiz sortu zuten Amikuzeko ikastola, 45 urte beranduago haur eskolan eta lehen mailan 11 urte arteko 70 haur biltzen dituen. Helduen berreuskalduntzen saiatzen da AEK, zientio erdi bat ikaslerekin. Eta azken urteotan bateko eta besteko ahaleginak bildu eta berriak hauspotzen Zabalik elkarte ari da


1983an Manex Erdozainzi-Etxart idazle eta fraidearen omenez Manex Gogoan izenarekin hasita, 1997an ekin zioten *Otsail Ostegunak* urteroko hitzaldi bildumari. Geroztik Zabalikek lortu du Amikuzen euskaraz bizi nahi duten pertsona eta elkarten bilgune izatea, elkarlanean jarriz: Kitzikazank antzerki taldea, Amikuzeko Musikariak elkarteko Gait'amik eta Txaranga, Bertsu Eskola, Aldaka gaztetxea, Ikastola, AEK, Kilimon joaldunen elkarte... Donapaleu erdaldunduko karri-

Haurren erdia baino gehiago A eredu ahulean edo batere euskararik gabeko G edo X ereduan ari dira Amikuzeko eskoletan

kak birritan okupatzen dituzten Santibate eta Libertimendua elkarlan horren erakusgai dira.

2011n Ikastolak 40 urte betetzen zituela eta “Amiñi bat, amiñi bi” kanpaina antolatu zuten lekuko mugimendu euskaltzaleaz hausnarketa egin eta harroaldi bat emateko. Ahaleginak, tartean, Amikuze eskualdearen historia eta kultura azaltzen dituen “Badea norbait?” liburuan mamitu ziren. Inor ba ote den galdetzea, horra egun argitan beren buruak azaldu nahi dituzten euskaltzaleen leloetarik bat.

EUSKALDUNEN BANAKUNTZA
(UDAL LURRALDEKA)



Euskararen ezagutza eskualdeka 1972an Pedro Irizarren arabera. Nafarroa Beherea osorik %80 gainera (gorriz) zebilen.

Baina nola egingo da aurrera ezertan, baldin eta eskolako umeen erdiak baino gutxiago badira euskara ikasten dutenak? Amikuzeko datuetatik abiatuturik, euskarak Iparralde gehienera bizi duen egoeraz ohartarazteko azterketa plazaratu du joan den apirillean Zabalikek bere webgunean 2015eko datuekin: “Euskara gure eskoletan : dena eta ez dena...”

Hegoaldean ezagunak diren ereduak alderatzeko, Iparraldeko haurrek Seaskan soilik ikas dezakete D ereduan, inmertsioa deituan, eta Amikuzen haurren %9 baizik ez dira ari. B ereduarekin *grosso modo* alderatzeko gela elebidunak badira eskola publiko askotan –ez denetan, esaterako Arberatze, Arboti, Arüe, Behaskane, Etxarri, Domintxine, Mehaine, Mithiriña eta Ozerainen sasi-elebitasun aukerarik ere ez da eta horietan ari dira %40. Gehienek, gainera, lehen mailatik aurrera abandonatuko dute euskarekiko edozein harreman.

Azkenik, ume amikuztarren erdia baino gehiago hezten dute Hegoaldeko A eredura ere iritsi gabe G edo X ereduen antza gehiago daukan ereduan. Eta Zabalikek alarma deia jo du: “Urgentzia egoeran gaude datu hauek ikusten ditugunean. Ondoko urteetan B eredu ez bada orokortzen, eta D eredu kopuru handiagoetara heltzen, jakinki belaunaldi euskaldunenak desagertzen doazela pirripitaka ondoko hamarkadan, lanak izanen ditugu sinesteko oraino Euskal herrian gaudela hemen gaindi”.

Amikuze bada Ipar Euskal Herrian euskarak gaur oraindik bizi duen gainbeheraren etsenplu zehatza eta gainerako euskal herriei ere zer pentsatua eman die ustez hobeak baina funtsean arras prekarioak diren beren egoerez.

Iñaki Caminok 2015eko otsailean aurkeztu zien amikuztarrei beren hizkera zahar kasik hilaren azterketa linguistikoa: *Amiküzeko Euskara*. Donapaleun aurkezpena egin zion Mattin Irigoien idazleak. Biei galdetu diegu orain arte gertatuen eta aurrera begirako nahi eta ezinen gakoiez. ■

Iñaki Caminorekin, Amikuzeko (h)euskara zaharraz

Iñaki Camino Lertxundi (Donostia, 1963) irakaslea da EHUren Gasteizko Letren fakultatean. 1980ko hamarkadan ARGIAko lankide aritu zen. Garai hartan hasi zituen hizkuntzalaritzako ikerketak Aezkoan eta beste hainbat eskualdetan. “Amiküzeko Euskara” liburua plazaratzen du udazken honetan Euskaltzaindiaren eskutik.

Amikuzeko euskara aztertzen, zer dela eta?

1985ean Aturri aldean eta Baxenabarren grabazioak egiten ibili nintzen, Amikuzeko Oragarren ere bai. Amikuzen lanean 2005eko azaroan hasita 2015 bitarte aritu naiz. Beti izan dut gogoan mugako mintzo bat izanik hor badirela ezaugarri batzuk... Eman dezagun, Baxenaberreko berrikuntza batzuk heldu dira Amikuzera baina ez denak, Zuberoako berrikuntza batzu Baxenabarren ez baina Amikuzen badaude, Zuberoako ezaugarri zahar batzuk ez Baxenabarren eta ez Lapurdin baina Amikuzen gorde dira, Bardozeko ezaugarri batzuk badaude Amikuzen eta Zuberoan baina Baxenabarren ez... Amikuzen bada ezaugarrien konbinazio bat dialektologia aldetik garrantzia duena. Gerora jakin dut Jean Etxeparek (1912) René Lafonek (1955), edo Henri Guiterek (1973) ere ikusi zutela Amikuzen zerbait berezia badela.

1985eko lehen elkarrizketa hartatik hasita, gaiaren inguruko dokumentazio guztia arakatzear gain, Amikuzeko herri guztietan lekuko bana elkarrizketatu duzu.

ZABALDIK



Iñaki Camino hizkuntzalaria Amikuzeko ikastolako haurrekin eskolan.

Bat edo bi eta Behaizen hiru. 31 herritatik 29tan egon naiz. Beti saiatu naiz herri bakoitzean bertan jaio eta gurasoak ere bertakoak zituzten lekukoak elkarrizketatzen. Horrek huts egiten du Donapaleuko kasuan: Donapaleuko karrikan ez dut aurkitu aipatu baldintzak betetzen dituen lekuko euskaldunik.

“Amiküze” idazten eta esaten duzu. “Ü” hori Zuberoako kontua besterik ez zela uste genuen.

“Ü” hori ez da esaten Amiküzeko herri guztietan, baina gehienetan bai, eta denak daude iparrari begira, hegoaldekoetan ez da egiten.

Gainera “Amiküzeko h-Euskara” diozu, liburu osoan ipini duzu “h” ttikiago batez. Liburu zaharretako “Heuskara” aldarrikatzen duzu?

“

Amikuzen zenbait herritan zahar batzuek, ez denek, hasperen egin eta ‘Heskuara’ esaten dute, batzuek ahulxeago, beste batzuek ozenago”

Nik ez dut ezer aldarrikatzen. Beharbada inoiz izan bazen “Enuskara” hitza, gero “n” hori galdu da eta arrastoa utzi du hasperen gisa... Inoiz irakurri izan dugu “Heuskara” (edo “Heskuara” edo “Hüskara”) ez zela inon geratzen Zuberoako Santagrazin baino, eta hori ez da horrela. Amikuzen zenbait herritan zahar batzuek, ez denek, hasperen egin eta “Heskuara” esaten dute, batzuek ahulxeago eta beste batzuek ozenago.

Urteotan Iparraldeko beste hainbat lekutan bezala zure begiek in ikusi duzu euskararen katea eteten.

Heletan 1982an ezagutu nituen senar-emazteak elkarrekin euskaraz ari zirenak eta seme alabek ez zekiten euskara. 1982ko udaberria zen, gogon dut guraso haiek nola galdetu zidaten Hegoaldean independentzia noizko zen.

Galeraren prozesua aspalditik dago abian. Hiriart-Urrutik 1898an Erronkariko datuak ikustean adierazten du Hegoaldean, Nafarroan, gauzak gaizki daudela baina Ipar Euskal Herrian “zaharrak dira beti euskaraz baizik mintzo ez direnak”. Esaten du Zokoatik abiatzen baldin bagara Santagraziraino bidean hainbat kasketadun eta frantximant agertuko zaigula eta aldi oro frantsesaren beharra gertatuko zaigula. Ordurako gauzak aldatzen ari ziren, gerora badakigu aldatu egin direla, azken 30-40 urtean nabarmen aldatu ere. Ez dakiguna da zer heldu den.

Amikuzeko euskararen ezaugarriak azaltzerakoan esana duzu Euskal Herrian leku gutxi izango dela jendea batetik bestera hainbeste mugitu dena, etxetiarren fenomeno ere [urtetik urtera baserriaren jabearekin kontratua berritu behar zuten maizterrak asko ziren hemen] tartean dago, eta oso aniztasun handia daukala bertako euskarak.

32 herri asko dira. Horietako jende batzuk Hazparneko merkatura joaten ziren, beste batzuk Maulekora, edo Biarnoko Salbaterrakora, Donibane Garazikora... Gero askok aita herri batekoa zuen eta ama bestekoa, hirugarren herri batera ezkonduak hango ugazaba batek eman dielako urte bete edo bost bertan lan egiteko aukera, eta gero beste batera doaz haur eta guzti... Amikuzen horrelako asko dago. Horrek dakar aniztasuna, baina beste aldetik gurutzatze horrek ekarri beharko luke batasuna, gurutzatzeak baitakar elkar ezagutzeari, nahasketa eta azkenean markatuenak diren ezaugarri berexienak galduz bezala doaz eta denonak izan daitezkeenak nagusituz.

Bilakabide horretan zentrala omen da Donapaleu. Bueno... “Dnaplü”, zuk diozunez.

Beraiek hala esaten dute, *Dnaplü*, lehenbiziko bokala desagertuz edo xuabetuz. Guretzako oso zaila da berdintzea. Donapaleuren garrantzia? Berrikuntza bat gerta dadin masa kritikoa bat behar da. Prestigioa duen norbaitek berrikuntza bat asmatzen dutenean ondokoek emulatu eta hedatzen da. Merkatua, dirua, lan aukera, aisia aukera... hori dena aspaldian Donapaleun gertatu da. Behar bada kanpotik eraman dira berrikuntzak, baina hiriak duen prestigioak eta erakarritasunak eragin du bertakoek berenganatu ondoren ondoko herrietakoek hartu eta etxera eramatea. Uste dut, hipotesi bat da, hori gertatzeko moduko indarra Donapaleuk duela.

Baxenabarren bi eskualdeko euskarak nabarmendu dituzu oso berezitat. Bata Amiküze, bestea Baigorri.

Baigorriin badira hizkuntza aldetik berrikuntzak Baxenabarreko beste eskualdeetan aurkituko ez dituzunak. Badira Nafarroa Garaiko berrikuntzak Baigorriin baizik entzuten ez direnak, eta era berean, Baxenabarreko beste eskualdeetako berrikuntzak Baigorriin falta dira. Berdin, Lapurdiko berrikuntzak Baxenabarren Baigorriin baizik entzuten ez direnak. Badakigu Baigorriko ardoa eta zerrien haragia baionesek erosten zutela... eta Iruñeko jendeek ere erosten zuten.

Baxenabarren erdiguneko errealitate linguistikoa, Garazik, Arberoak eta Oztibarrek dutena, amikuztar eta baigorriarrek ez dute partekatzen horrenbeste, lotura estuak dauzkate batzuek Zuberoarekin eta besteok Lapurdirekin.

Zuberoak Pirinioetako ekialde osoa artikulatzen zuela aldarrikatzen duzu, eta hori nabari dela ekialdeko euskalkietan.

2011ko artikulatu batean aldarrikatzen nuen euskaraz batu zaharra, alegia, Mitxelenak-eta planteatzen dutenean V-VII. mendeetan euskarak egon behar zuela orain baino batuago, mintzo koineago bat egon behar zuela, nik planteatzen nuen euskaldun multzo bat bereizi zela lehenik enbor horretatik: zuberotarrak eta erronkariarrak. Hauek dira beren ezaugarri zaharregatik eta berriregatik besteengandik bereiz gelditu direnak. Gero etorri dira beste zatiketa guztiak, ekialdeko besteak, gero Araba, Bizkaia eta behar bada Gipuzkoako alderdi batena, gero erdialdekoa eta adar desberdinak. Horien kronologia eta frogak bilatzeko lanak oraindik lehen urratsetan daude.

Ene ustea da garai hartan Aturri aldea, Bardoze, Amiküze, Zaraitzu, Erronkari eta Zuberoa lotuago zeudela gizarte aldetik, ekonomia aldetik, artzainago zirenean. Artaldeak Landetara, “*à las Landas bordelesas*” eramane behar ziren, ardiek eta behiek edan zezaten ur handia dagoen lekutik. Horregatik badira hizkuntza ezaugarriak gainerako Lapurdin eta Baxenabarren ez direnak baina Bardozen, Lehuntzen, Urketan, Amiküzen

eta Zuberoan badirenak. Aziendek ura edateko behar zutelako gertatu zen ez dakit, baina kontua da Baiona ondo-ondoko Hiriburua, Mugerre, Lehuntze eta horietatik abiatuta Zuberoraino badela *continuum* eta batasun hein bat.

Eta berrikuntza horiek guztiak batera leku bakarrean daude: Zuberoan, beharbada artzain gizartea zelako. Zuberoako artzain gizartearen legedia ikaragarria da, Xarles Bidegainek Euskararen Atlasean horretaz azaldu dituen ezaugarriak ez daude Euskal Herriko beste inon. Behar bada arditik bizi zen gizarte hartan, hiriak eta merkatuak barne, sortu zen ekialdearen indarra. Bere garaian Gasteizen zegoen indarra bezala, iristen baitzen Zegamaraino, Urola, Deba Ibarra edo Bizkairaino.

Biarnoren eragina ere bada Amikuzen.

Bai, lexikoa nabarmena da. Batez ere Zuberoan aztertu da, hitz zatarretan, kulturakoetan, tresnerian... Ahoskeran baliteke “ü” hori Biarnotik iritsia izatea. Morfologian ere zerbait agertzen hasi



Amikuzeko herriak eta euskararen aldaerak herriak. Mapak erakusten duenez, Zuberoako euskararekiko trantsizioa uhinka bezala gauzatzen da.

da, Manu Padillak aurkitu du zerbait, eta euskal dialektologia landuago daukagunean beste ezau-garri batzuk edukiko ditugu behar bada.

Zuberoan eta Amikuzen jendea soldadogora joaten zen euskara eta biarnesa jakinik, mutilak bidaltzen zituzten Biarnora urte beterako mutil [morroi] gero merkatuetan azienda tratuan mol-datu zitezten. Soldadogoan, edo eskolan, ikasiko zuten frantsesa hobeki. Euskaldun kaskoin mintzalariaren fenomenoaren errotik desagertua da gaur, baina duela hogeitun urte arrunta zen hemen.

Amikuzen betidanik Lapurdiko euskara ederretsi dutela diozu.

Hasteko, ez da Amiküzeko literaturarik. Dotrina liburu bat dago 1740. urtekoa, Akizeko apezpikuaren aginduz Pauen argitaratutakoa, baina hortik goiti ez dut ikusten amikuztar batek agertutako testurik, oso modernoak dira. Baina Baxenabarrek ere ez dauka literaturarik. XIX. mendeko baxenabatarrek idatzi dute Baionako apezpikuari begira. Hitzunek ere ederresten dute Hazparnekoa, apezek eta misionistek zekartelako, Zuberoakoa abila dela jotzen duten bezala. Hazparnekoaz gain, Sarrikotako hitzunak ederresten zuen Garazikoa, Oztibarrekoak Baigorrikoa, eta Baigorrikoak Lapurdikoa.

Jean Haritxelhar berak Baxenabarreko hizkera jotzen du idortzat, hitzak jaten dituela, berdin lehenago Jean Etxeparek. Ohitura da Lapurdiko eta Zuberoako euskarak ederrestea eta Baxenabarrekoa ez.

Zuberoak eragin handiagoa Hazparnek baino?

Askoz eragin handiagoa dute Maulek eta Zuberoak, Amikuze gehiengan. Oztibarren zertxobait hedatu da eta Garaziraino ez da iritsi eragin hori, tartean mendi handiak daudelako. Orografiaz gain, merkatuen indarra dago, ostiraletan Donapaleun, larunbatetan Maulen. Eta Zuberoko eragina sartzen den bezala Amiküzén, Donapaleu-



Ene ustea da garai batean Aturri aldea, Bardoze, Amiküze, Zaraitzu, Erronkari eta Zuberoa lotuago zeudela gizarte aldetik, ekonomia aldetik, artzainago zirenean”

rena sartzen da Zuberoan, Ithorrotzen, Olhabin, Berroetan...

Zuk, soziolinguista ez zaren arren, euskararen gainbeheraren xehetasun garrantzitsuak bildu dituzu liburuan. Euskalkiaren mesprexua aurkitu duzu zure lekukoen artean?

Nik ez dut sentitu ikerlanerako elkarrizketatu ditudan herritarrek beren mintzoa gaitzesten dutenik. Iruditzen zait Frantziako kulturaren, Frantziako estatu indarraren eragin hori, laborarien sukalderraino indarrean sartu dela eta azkenean bi plano geratu direla: iragana eta oraina. Oraina da ekonomia, artoa, sosa, Lur Berri... eta hor euskarak ez du funtzionatzen. Iraganean bai, baina iragana zen artoa eskuz biltzea, harreman hertsia auzoen artean, beste mundu bat. Nire lanean Domintxineko lekuko batek aipatzen du berak zortea ukan duela bi munduak ezagutzeko, iraganeko mundua euskaraz bizi baitzen, eta oraingo mundua moderno dena, tresneria, maxinak... eta frantsesa. Nafarroa Garaian bezala, hemen ere jendearen imaginarioan bi plano horiek daude.

Ez dute sentitzen hegemonia frantsesak eten bat eragin duenik, enekin euskaraz segitzen dute normaltasunez baina gero haien ingurua sumatzen da frantsesa dela. Gamueko lekuko batek esaten du “herriko gazteak pilotan ari direlarik

frantsesez entzuten ‘tut’, esan nahi du frantsesera lerratu direla baina hori ez litzateke posible lekuko horrek berak bere inguruan frantsesez egin ez balu. Etena gertatu da, gertatzen ari da, gertatuko da, etxetik etxera aldatuko da, baina horrek barrenean eragiten duen oinaze edo pozaren berri ez dugu garbi ikusiko nola den ez bada horretaz lan xehe bat egiten.

Liburuan diozu: “Euskal Kanta Berria, Ikastolak, Abertzaleak... Nolanahi ere den, ekintza euskaltzale edo abertzale hauek guztiek ez dute erdietsi Ipar Euskal Herrian gertatzen ari den berezko hizkuntzaren galera saihestea”.

Bai, baina egia da ere ari direla lanean eta egiten duten heinean horren fruitua azalduko da. Baina Amikuzen euskararen galera nabarmena da. Garazi, Iholdi edo Baigorriko eskualdeetan, herri txikietan, gazteak ari dira euskaraz edo ari daitezke. Amikuzen frantsestea nabarmenagoa da.

Zuk ondo ezagutzen duzu Amikuzeren ifrentzua egiten duen beste eskualde bat, Aezkoa. Hemen erakutsi da bestelako bidea ere posible dela, berreskuratzea alegia.

Bai, Aezkoan ni iritsi nintzenean [1980ko hamarkada hasieran] zero ume euskaldun zeuden eta gaur gazte guztiek dakite. Aezkoan, edo Agoitzen, edo Otsagin, edo Erronkarin, euskaldun hartzaileak dira. Badakite euskaraz, baina eskolako zerbait da, ez dute beren artean baliatzen. Eta inoiz idazten baldin badute zerbait, berehala nabaritzen da erdararen errotatik ehotako euskara dela.

Baina etorkizuneko euskaldunek beharko dute balio duen euskara bat. Testu bat idaztean unibokoia izatea, anbiguotasunik gabea, kaxkax artean “txukuna”, lehenbiziko irakurraldian ulertzeko



Donapaleuko plaza azoka ostiral batez 1920 inguruan.

modukoa, etorkizuneko gaietarako balio duena. Hori gertatu ezean, euskarak subalterno jarraituko du eta inork ez du aintzat hartuko.

Euskalkiak, euskara zaharrak, aztertu eta funtsean maite dituen zu bezalako gizon batek... nola bizi duzu oharrea horiek bukatu direla eta aurrera aterako den euskara beste bat izango dela, lehengoaren aldean eskasa alderdi askotan?

Ni garbizalea naiz. Baina lan hau egiten dudanean ez naiz euskaltzalea, ikertzailea naiz. Bestela leher gaizto egingo nuke. Ni saiatzen naiz herri bateko euskara ahalik eta ondoen biltzen gero aztertzeko. Ondotik pentsatzen dut hor zer sentitu dudana, baina hori gehiago geratzen da sozio-linguistikarako.

Gurpil meheko traktore zaharrak bukatu ziren bezala, gu bezalako euskaldunak ere bukatuko dira. Euskarak prestigioa ematen bazaio prestigioa hartuko du, horretarako euskarak ona beharko du, ez du balioko itzulpen-fotokopia moduko euskara kaxkarrak. Bide bakarra da euskara gaitua eta egokia izatea, dagokion garai eta gizarterako, baina hori sortzeko dago. ■

Mattin Irigoien: Amikuze jada euskalduna balitz bezala bizi

Mattin Irigoien (Ainhiza-Monjolose, 1964) lanbidez nekazarien formakuntza elkarte batean ari da, Arberatzen finkatua. Idazle eta antzerkigile ezaguna, 2009an Bilbon emandako hitzaldiaren mamiaz “Nola eutsi diogu gure euskarari” plazaratu zuen. Amikuzeko Zabalik elkartearen zuzendaritzako kidea da.

Kontatu izan duzu Amikuzera 1990ean heltzean Garazi aldetik behin eta berriro frantsesez erantzuten zizun zahar haren istorioa.

Ni hasi naiz euskaraz, berak frantsesez erantzun behin, birritan, hirugarrenez... Geroztik euskaraz egin izan dugu. Baina niretzako txokea zen adin bateko jendeak niri frantsesez ihardestea. Geroztik konprenitu nuen beretzat 20-30 urteko jende horrek frantsesez egiten zuela bere bizia eta zaharrek integratua zutela hori gauza normal bat bezala.

Ni euskaraz bizi zen mundu batetik aterea nintzen. Gure herrian koadrila guztia euskaldunak ginen, abertzaleak ere batzuk, gure mundua zen kantuz hartzea, besta egitea, bertsuka... Garazin ere galtzen ikusten genuen, baina Amikuzen ohartu nintzen 20 urte gehiago pasatuak zirela. Filma baten azelerazioa bezala.

Zerk eraginda?

Iduriz, modernismoaren sartzea biziki lasterrago eta bortizkiago gertatu da hemen. Soziologia aldetik, Amikuzen jende gehienak maizterrak



Mattin Irigoien idazle eta antzerkigilea Arberatzen.

ziren, etxetiarrak, etxe zainak esaten den bezala. Herri batean izaten ahal zen lur jabe bat edo bi, berdin Donapaleun bizi zirenak, eta laborari guztiak ziren haien menpeko. Urte guztiz ez mozkinen erdia, beren negozio zifraren erdia eman behar zioten, uztaren edo saldu aratzeen prezioaren erdia.

II. Mundu Gerraz landa lege berri batzuk ateratzen dira Frantzian nekazaritza produktibismoan sar arazteko, sortzen dira laborantzako banku eta asurantzak, eta etxaldean lege berria: lur jabeak ez zaio engoitik uztaren erdia pagatuko baina hektareako halako sari bat. Horrela laboraria modernitatean sartzen ahal da, maileguak hartzen ahal ditu... Ordura arte lohian bizi zen jende hori guztia heltzen da ber etxe berria erakitzerara, bere lurren erostera, eta garapena dela medio jendea modernismoan sartzen da buru belarri, gibelean utziz euskara.

Artoaren eremua eta ardiaren eremua bereizten dituzue.

Nafarroa Behereko ardiaren eremuan ere, erran nahi baita mendi aldean, modernitatea sartu da baina ez hain bortitz. Bada halako euskal erresistentzia bat, pasiboa nahi bada. Hor sortu da eta indartsuen mantentzen ELB sindikatua. Harreman sozialak mantendu dira euskaraz. Hemen, jendeak produktibismoan sartzean, sistema frantses batean sartuz, duintasuna bildu du. Duintasuna ematen dio lurrak ukaiteak, kredituak hartzeak, kooperatiban sartzeak. Eta pasatzen dira frantsesera. Uzten dituzte lehengo etxe zaharrak borda edo biltegi bilakaturik eta ondoan eraikitzen 1960-1970eko villa itxurako etxe berri horietarik, izolazio zero dutenak. Frantsesez mintzo dira errobineteko [kanilako] ura, elektrizitatea, frigorifikoa, dutxa, autoa, traktorea.

Zuk ahalkea ere aipatu duzu.

Hori orokorragoa da, Iparralde guztikoa, denok badugu buruan, kolonizatuak izan baikara. Horregatik nik bizia ikusten dut deskontaminatze prozesu bat bezala. Buruan sartua dugu, euskara azpi gauza bat dela. XX. mende hasieran “leit motiv” politikoa zen “Aberri ttipia eta Aberri handia”. Eliza katolikoa bera XIX. amaieran eta XX. hasieran Errepublikaren kontra zen, baina une batez egin du jauzia, Hiriart-Urrutyk eta denek: “Errepublika barnean borrokatuko gara orain”. Hor agertzen da aberri ttipiaren eta aberri handiaren kontzeptua.

Euskaltzaleak ziren eta aldi berean Frantziatzale. “Eskizofrenia totala”, esaten ahal dugu, baina bazuten beren koherentzia: eliteak frantsesak ziren eta euskara bilakatzen zen elitearen tresna jendea kontrolatzeko. Jendeak behar baitziren babestu, euskara hesi bat zen kanpoko mundutik babesteko. Hiriko galbideak ziren sexua, komunismoa eta... hiria bera. Horrela ulertu behar da “Euskaldun, fededun” lema. Jendea garbi atxiki nahiz, hizkuntza bera ere zikiratzen dute, hori da “apez euskara” esaten duguna.

Apezen euskara?

Lehen aipatu zahar hark, konfiantza egin genuelarik, esan zidan behin berak ez zuela “Hazparneko euskara” ederra. Esan nahi baita, apezen euskara: misionestena, jendea infernuarekin eta beste beldur araztera urtean behin herrietara etortzen ziren haiena. Adibidez, Garazi aldean baino gehiago mintzo zen Amikuzen toka eta noka, pentsatzen dut hori ere etxetiarren kondizioari lotua izango zela. Baina euskara salbai gisa izan da perzibitua apez euskararen defendatzaileengandik, zikina, utzi beharra. Berdinen arteko harremana iradokitzen duelarik... edo duelako.

XX. mende hasierako euskaltzaletasuna, ene irudiko, populu xehearen kontrola da, ez da “jendea euskararen alde”, diglosia totala da. Eta uste dut euskararen aldeko gure mugimendua ere oraindik horretarik kutsatua dela. Modernitatean sartzean, diglosia bakoitzaren buruan sartu da eta “Aberri handia eta aberri ttipia”, beste hitz batzuek hor da gure baitan azkar gaur ere.

Gaur Gipuzkoako zifren antzekoak izan arren, Amikuzen ez da karrikan kasik euskararik entzuten... salbu eta ostiral goizez Donapaleuko ferian.

Bai, baina ttipitik elkarrekin bizi izandako gizon zaharrak dira. Aldiz, kafea pagatzera zutitu orduko frantsesez eginen dute. Frantsesez biziki ongi badakite eta etxean hurrekin frantsesez ari dira.

Hala ere, jakitea euskara zerbait bat da, baina hizkuntza bat erabiltzen ez bada galdu egiten da. Bizitzan gauzak eten gabe aldatuz doaz, lehen idatzizkoa baldin bazen inportantea gero telebista heldu da, gero Internet... Berrikuntza guztiak frantsesez baldin badatoz, euskara atzera gertzen da, aroa eta zerbait gehiagok hitz egiteko, esan “Egun on” eta gero benetako gaia frantsesez hitz egiten duzu. Erresistentzia handiena den lekuetan ere, mendialdean ere, argi ikusten da.



Euskaraz ari ez naizen aldi oro euskara hiltzen da, eta euskarak bizi behar badu, behar du gaur bizi. Hogeitaz urte berru ez dugu arrahartuko”

Abertzale mugimenduak ez du hori gainditzea lortu, entzuna dizugu.

Abertzale mugimendua oldartze bikoitza da ene gustuko. Batetik XX. mende hasierako elite euskaltzale haren kontra eta “euskaltzale” hitza ez du gehiago erabiltzen. Oldartze bat da ere modernismoak oreka zaharrak hautsi baititu. Orduan diskurtso iraultzaile hori bereganatzen du, ezkerrekoa, 1968ko maiatza, Hirugarren Munduko deskolonizazioa... baina nondik elikatzen da? Ez euskaratik, dena frantsesetik abiatzen da, aldizkari politikoak, kontzeptu guztiak, denak frantsesez pentsatuak dira. Mugimendu askatzaile bat, euskararen aldekoa, frantsesetik elikatua.

Gero, bistan dena, Ikastolen mugimenduan, Gau eskoletan... badira euskara zentralitatean ezartzen duten jendeak. Baina minoria barneko minoria dira. Idatzira ez da guti baizik pasatzen egunerokoan. Ez da mugimendu askatzailea euskaraz hazten.

Ikastola aipatu baituzu... nola pasatu da inguru honetan euskara batuaren eta lekuko euskara zaharraren arteko uztartzea?

Ikastola heldu da Hegoaldetik eta material pedagogikoa behar baita, hala moduzko batu bat baliatzen da. Amikuzen ohartu naiz bazela eten bat horren eta lekuko euskararen artean. *Libertimendua* abiatu dugularik, gazteek ez zekiten beren aitaxi-amatxiek kantatzen zituzten Amikuzeko kanta

zaharretatik bat bera ere, ez hemengo etxetiarren istoriorik nahiz eta beren familietako kontuak izan. *Libertimendua* izan zen gazteontzako beren geografia ber-hartzea, historia soziala berreskuratzea. Ikastolak ez zuen transmisio hori ahalbideratu.

Txoke hori goxatua da gaur egun?

Etenaldiaren denboran euskara debekatua zen eskolan. Debekuaren indarra ahuldu da abertzaletasuna indartu arau. Ardiaren eremuan, euskarak sendoen iraun duen eskualdeetan, gaur badi-rudi onartzen dela elebitasuna dela onena. Eskola sartze [matrikulazio] datuak ikusiz gero, gurasoek beren haurrentzat hautatzen dute euskara edo euskaraz ikastea. Hemen, Amikuzen, euskara iraganeko kontua da jende askorentzako, bertako eliteak hala uste du. Baina hemen ere gurasoek aukera dutenean hautatzen dute euskara. Bada hila ez den itxindu bat agian.

Frantziako estatua ez baita lo den ximinoa, noiztenka ekarpen batzuk onartzen ditu. Ikastolak ezagutu zituzten eskola bezala, gero heldu zen Euskal Kultur Erakundea, gero Euskal Herria 2010 bere hautetsi kontseilu eta garapen kontseiluekin, halako *think-tank* bat integratzeko abertzaleen ideiak eta abertzale jendea ere bai... Hor egin ziren proiektio batzuk, onarpen maila batzuk ere bai, eta ordutik zer ikusten dugu? Kulturaren baloratzen diren gauzak direla elebitasuna, profesionalismoa eta ondarea. Hizkuntza bilakatzen da ondare.

Hori da Frantziak onartzen duen tokia probintzia bati, azpi kultura bat, frantsesa da jendeari *baimentzen diona hemen izatea* “*liberté*”, “*égalité*” eta “*fraternité*”, hizkuntza hortarik pasatzen da jende izatea, “*citoyen*”. Profesionalismoa da delegazioa eta merkatua begiratzea, merkatua baita frantsesez, euskara hor barnean izanen da soinu bat. *Ele-bi* da diglosia egoera, frantsesaren alde itzultzen da azken finean, euskaraz funtzionatzeko hautua ez planteatzea erran nahi baitu ahal liteken lekuetan

Zuk gordin kritikatu duzu gure belaunaldiak euskaratik dimititu dugula.

Ez dut kritikatzeko, entseatzeko naiz ulertzera, ulertzetik bide batzu irekitzen ahalko direlakoan; iduritzen zait gure euskararen aldeotasuna pose batean gelditzen dela. Erabilera ez dela helburu. Eufemismoetan goxatzen garela. Euskara nahi bada eguneroko hizkuntza izatea geroan ere, kutura hizkuntza eta soziala, ez ditugu minimoak betetzen horri buruz joateko. Bat, helburua ez da gehiago aipatzen. Bi, eufemismoetan gabiltza. Hiru, maila biziki apalean gaude exigentzietan. Besteei buruz, ofizialtasuna edo ko-ofizialtasuna beti, baina guhaurri buruz biziki apal exigentzian, biziki eroso.

Protestan badu presentzia euskarak, gainera badu borrokarako indar hori, markatzen du radikalitate bat, baina gero hori guztia bizi da frantsesez. Afera da euskararen alde garenok ez dugula planteatzen aski zein den helburua... hizkuntza biziko baldin bada bihar, gaur haur guztiek behar dutela jakin. Ez umeen erdiak eskolatzeko B eta D eremuan: denek ikasi behar dutela. Hautua hizkuntza jakinik planteatzen da. Ezin banaiz euskaraz ari frantses elebakarrak direlako, orduan ez dut hauturik, ez nik ezta frantses elebakarrak ere.

Ko-ofizialtasuna aipatzen da eta esan liteke horren barnean egon behar duela konponbideak. Baina Frantziak ez du utziko ko-ofizialtasuna, Espainiak utziko ez duen bezala independentzia Kataluniari, baldin ez bada gertatzen alde bakartasunetik... Baina ko-ofizialtasuna eskatzen dugu eta bagoaz pintxoak jatera frantsesez. Oso azpiratua baitauek gure burua.

Hemen biharko delegatzen dugu euskararen erabilera, biharko haurrek egiten dute, ikastolak egiten du, Hegoaldeko indarrak egiten du guretzat, amesten ahal duzu ere... Gaur ezin dugu: bihar. Bada eliteko abertzalerik erran duenik galduta ere errekuera daitekela hizkuntza; artean

GARRIS LEHENGO GARRUZE



Baserritarrak eta tratulariak –makiñonak– Europako zaharretakoa den Garruzeko ferian.

frantsesez egin beharko dugu euskara ez dakitenak konbentzitzeko. Frantsesez konbentzituak euskararen beharra izanen ote du? Nik diot justo kontrarioa: euskaraz ari ez naizen aldi oro euskara hiltzen da, eta euskarak bizi behar badu behar du gaur bizi. Komunitatea konpaktatzen dituen guneak behar ditugu, hizkuntzak nahiko dentsitatea izan dezan biziberritzeko. Hizkuntza exigentzia diluitzeak hizkuntza likidatzeko balio du. Hogeita urte barru hizkuntzak ez du bizian bidaiaitzeko balio, turismorako agian. Israel da hizkuntza bat hutsetik berriz eskuratzen ari duena, dakidanez, eta ikusi ze moldetan.

Bestalde, bizi bat baizik ez dugu, eta ez dut sinesterik “bihar irabaziko dugu” bezalako leloetan. Gaur bizi dezagun biharko nahi duguna. Hori ekologistena da, feministena eta alternatiboena: ez bada gaur bizi, galdua da borroka, gu gaur baikara bizi. Zein dira azken urteotako gure plazerrak, gure bozkarioak? Egunkariaren sorrera edo bertso eskolak hasten direnean Iparraldean gazteak hastea ostatuetan euskaraz...



ZABALIK

2015eko Libertimendua Donapaleuko plazan.

horiek dira gure bozkarioak. Edo gazte talde batean sortu, sentitu, landu antzerki bat. Hor ikusten dugu euskarazko komunitate bat badela. Internet ere hor baita, ni hurbilago sentituko naiz ARGIAren gunean ari den egile batez, hemen euskararen alde frantsesez ari denaz baino.

Eta zertan ari zarete Amikuzen Zabalik elkartekoak?

Azken hamar urteotako lana izan da euskara elkarte sortu eta euskaingintzako jendea aglomeratzea. Atomizaturik biziz etsipenean erortzen zara eta exigentzia mailak apaltzen, normala da bakarka ari baldin bazara horma baten kontra eta hormak ari beti handitzen. Euskaraz bizi nahi duten taldeak sustatu eta elkartzea, hori izan da lehen lana.

Aipatu dezagun Libertimendua.

Libertimendua egiteak lortzen ditu hainbat helburu. Batetik, antzerkian gurutzatzen dira belaunaldi

di bateko zortzi-hamar pertsona, denetara Kitzi-kazank taldean aritu dira 30 gazte baino gehiago. Euskaraz baizik funtzionatzen ez duen gunea sortu da hor, “euskaratik eta euskaraz”. Maialen Lujanbiok hiru hitzetan gure filosofia laburbildu zuen bezala, horra gure bizi xedea. “Euskaratik” horrek gehitzen baitu, transmisioaz gain badela mundu bat gure xedez, naturaz, helburuez bizi-razi behar duguna. Belaunaldi bakoitzak behar du arra-sortu euskara, laborategi hori da ere *Libertimendua*.

Gero, emozioen mundua, bizitzea esperientzia bat euskaraz posible ez dena beste inon. Ikastolan posible zen, baina ikastola da bizitzako ehuneko zenbat gazte batentzat... laurden bat? Telebistak hartzen du gaineratikoa, eta kirolak eta abar. *Libertimendua* da trinkotzea belaunaldi bat. Eta gero da plaza hartzea. Ez da gauza guti euskara desagertu denean aspaldi plazatik, baldintza horietan euskara fini zela pentsatzen duen Donapaleun egitea, konplexuak ezabatu eta uxaturik. Ez dugu planteatzen ere itzulpenik egin behar dugun. Amikuze jadanik euskalduna balitz bezala egitea egun horretan. Gure gabeziekin, gurekin ari den dantza taldea frantsesez ari da, ados, egiten dugu ahal dugun oro dauzkagun testu-guruan.

Baita ere publiko bat biltzea, komunitate bat sortu eta hari mintzatzea. Jendea heldu da, zutik egongo da goiz osoan hor, irri egiten du lasai, ez da gela batean, ilunpe batean. Ikusgarritasuna kendu eta sortzen dugu ekintza bat. Ez da espetakulu bat gaur euskal kulturaren hainbeste egiten den moduan, gertakizun bat da hemen sortua, komunitatean, euskaratik eta euskaraz.

Bada ere ondareaz jabetzea, Amikuzen galdu-tako kantuak sartzen ditugu, zirikatze moduak, mintza moldeak, toka eta noka nahiz eta nekezia handiz, irri egitea gure kondizio konplexuetaz... katarsia da bilatzen.

Amikuzen antolatzen saiatzen zarete euskal komunitatea, bilduz zuen Zabalik elkarte, Ikastola, AEK, Gaztetxea... Funtzionatzen du?

Hasteko, bisibilitate minimo bat lortzen dugu jendeer buruz, ez baitzen lehen. Gero, badugu leku bat mintzatzeko gai horretaz, hizkuntza zentroan delarik. Pertsona edo talde batek ideia bat duenean, bada leku bat non tratatu eta planteatzen ahal dugun nola egin estrategikoki hori gauzatu dadin. *Libertimendua* sortuz geroz, orain. Bertso Eskola ere badugu, gauza guti baina bada, lehen ez zen, urrats bat gehiago beti.

Orain jin zaigu guraso talde bat esanez aisialdi zentro bat euskaraz behar dela sortu. Hori da... gure hasieretako ametssetako bat. Horra ekintza bat beharrezkoa dena. Komunitatea trinkotzen bada posible da dena, trinkotua ez denean ez da posible, hizkuntza ez baita zentroa.

Alabaina, duela hogeit edo berrogei urte hasi bagina, jendea euskalduna zelarik... Gu orduan antzerkian ari ginelarik 1985ean-eta, euskal komunitate bat bazen, hamarretatik zortzi gure populazioan. Uste genuen posible zela baina heldu gara hona eta orain hamarretarik zortzi frantsesez da. Bada sentimendua zerbait huts egin dugula hor, jauzi kualitatiboa.

TELP bat ere antolatu duzue. Hegoaldean ere oso aitzindaria da hori: nola pasatu da hemen? Ez ote da aurreragi jotzea?

Urrats bat gehiago izan da. Inertziak diglosia indartzea dakar euskal mugimenduan eta TELPa da talka bat horri buruz. Jende bat heltzen bada planteatzera euskararen erabilera eta nola diren hizkuntzen arteko harremanak, “nire gain da euskaraz bizitzea, euskaraz dakitenekin nik uste baino gehiagorekin ari naiz frantsesez”... kontzientzia hori hartzea ez da aitzinatuegia. Aitzinatuegia da pentsatzen baldin badugu “ui, behar dugu kasu egin, zeren eta behar bada bortxatuak sentituko

dira euskara ez dakitenak...”. Hemen euskalduna da beldur horiek gehien sarturik dauzkana.

Zertan da aitzinatuegia TELPa hemen? Izatekotan, ikusten da horren eta hemengo jendartearen arteko *decalage* bat, hasieratan garelako edo ez garelako anitz jende. Baina hizkuntzaren gaian zer beste egin daiteke? Utzi egin behar ote dugu beste guztiak hizkuntzaren galera ekartzen badu? Bertsolari moduan erantzunez, hau aitzinatuegia baldin bada, beste bideak gibelatuegiak dira. Zuenean ere bada debate hori...

Hegoaldean elebitasunaren etapa asko erre ditugu TELP bezalako ekintza eta planteamenduetara iristeko.

Diferentzia da zuenean belaunaldi gazteak euskaldunak direla jakitatez. Baduzue masa sozial bat, gaztea, gazteek pentsatzen ahal dute “ez badut nihaurrek egiten, ez diat nehoiz eginen” eta hor biziki ongi heldu da. Ezberdina da guk hemen planteatzea gauza horiek jadanik euskaldunik ez denean edo arras guti. Pentsatzen ahal da indar xahutze bat dela edo ez dakit zer. Baina hemen ere, egiten duguna ez egitea... frantsesez bizitzea da orduan.

Ni ez naiz ariko frantsesei euskara inposatzen. Baina euskara dakitenek utzia baitute, inertziatz frantsesez ari baitira beren artean, hori irabaz dezagun. Partitu behar dugu garen lekutik, hori izanen da lehen urratsa. Gero menturaz bizi baldin bagara beste berrogei urtez, menturaz euskara ez dakitenek ikasiko dute eta...

Hori da aldaketa soziala sortzea, hasteko bakoitzaren buruan, eta gero hori kolektiboki agertzea, bizitzea. Giroa berotzea dagokigu, eta hori elkarte xedea da, euskara elkarte baten xedea. Eta gustura, sufritu gabe, ez gaude hemen jansenismoan. Kontrarioa baizik, oso baikorra eta altxagarria den bizi-esperientzia baita gisa hortan eramanik. ■

ALZA PURRU

Eraman etxera **Jakoba Errekondoren** jakintza
puntako **8 marrazkilari** hauek umorez komiki bihurtuta

BARATZA MUNDU ASKOTARAKO ATARIA DA:
GURE KULTURAREN OINARRIA DEN LURRA
LANTZEAREKIN BATERA JORRATZEN DITUGU
INGURUMENA, HEZKUNTZA, SEXUA,
ELIKADURA, UMOREA, EKONOMIA...



ANTON OLARIAGA



JOSEBA LARRATXE



ZALDIEROA



UNAI ITURRIAGA



UNAI GAZTELUMENDI



AIZARA AZPILAZU "A&P"



"MATTIN" MARTIARENA



ASISKO

EROSI 101 ORRIKO
KOMIKI LIBURUA KOLORETAN

19'50€

18€

harpidedunentzat

ANTOLATU KOMIKHITZALDIA ZURE HERRIAN

Landareen inguruko gaiak
azaltzen ditugun bitartean,
komikiak sortuko ditugu,
zuzenean!

☎ 943 371 545

www.argia.eu/denda

edukia@bizibaratzea.eu


argia.eu


www.bizibaratzea.eu

